

ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2019ko apirilaren 1a, astelehena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **1 de Abril de 2.019, lunes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNeko AZTERGAIK

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2019.03.06).

2.- “TOLOSALDEKO EUSKALGINTZAREN GOBERNANTZA EREDU BERRIA – TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA” DOKUMENTUA ONARTZEA, BIDEAKOA BADA.

3.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO HAUTETSIEN ADIERAZPENA, ITSASO ETA CASTEJON MURUARTEKO GOI TENTSIOKO LINEARI BURUZ.

4.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (62/2019tik 83/2019ra).

5.- 2019ko APIRILAREN 28ko HAUTESKUNDE OROKORRETAKE MAHAIAK OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.

6.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

Zizurkilen, 2019ko martxoaren 27an

Alkatea.



ORDEN DEL DÍA

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (06.03.2019).

2.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL DOCUMENTO “TOLOSALDEKO EUSKALGINTZAREN GOBERNANTZA EREDU BERRIA – TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA”.

3.- DECLARACION DE ELECTOS PRESENTADO POR EH BILDU EN RELACION CON LA LINEA DE ALTA TENSION ENTRE ITSASO Y CASTEJON MURUARTE.


4.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (62/2019 al 83/2019).

5.- SORTEO PARA LA FORMACIÓN DE LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES GENERALES DEL 28 DE ABRIL DE 2.019

6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 27 de Marzo de 2.019

El Alcalde.



ZIZURKILGO UDALA

**2019ko APIRILAREN 1ean EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DIA 1 DE ABRIL DE 2.019**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA/ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

Arkaitz Zaldua Jauregi (EH Bildu)

Eva Usandizaga Mujika (EH Bildu)

María Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.)

José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)

Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu)

Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hemeretzi apirilaren bateko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Nuria Martín Iban (E.A.J.-P.N.V.) eta Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN
AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA
(2019.03.06).**


Udalbatzak, aho batez erabaki du 2019ko martxoaren 6an egindako Bilkuren Aktak onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día uno de Abril de dos mil diecinueve, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) y Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL
ACTA DEL PLENO ANTERIOR
(06.03.2019).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 6 de Marzo de 2.019



ZIZURKILGO UDALA

2.- “TOLOSALDEKO EUSKALGINTZAREN GOBERNANTZA EREDU BERRIA – TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA” DOKUMENTUA ONARTZEA, BIDEAKOA BADA.

Akta honen I Eranskinan jasota dago aurkeztutako Dokumentua.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (6 EH Bildurenak, 2 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako Dokumentua onartu egiten du.

3.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO HAUTETSIEN ADIERAZPENA, ITSASO ETA CASTEJON MURUARTEKO GOI TENTSIOKO LINEARI BURUZ.

Akta honen II Eranskinean jasota dago aurkeztutako Adierazpena.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 6 (6 EH Bildurenak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 3 (2 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).

Beraz Udalbatzak, Gehiengo botoekin, aurkeztutako Adierazpena onartu egiten du.

2.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL DOCUMENTO “TOLOSALDEKO EUSKALGINTZAREN GOBERNANTZA EREDU BERRIA – TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA”.

El Documento presentado es el que se reflejada en el Anexos I del presente Acta.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (6 de EH Bildu, 2 de E.A.J.-P.N.V y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Documento presentado.


3.- DECLARACION DE ELECTOS PRESENTADO POR EH BILDU EN RELACION CON LA LINEA DE ALTA TENSION ENTRE ITSASO Y CASTEJON MURUARTE.

La Declaración que se presenta se refleja en el Anexo II del presente Acta.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (6 de EH Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 3 (2 de E.A.J.-P.N.V y 1 de S.V.-E.S.).

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Declaración presentada.



ZIZURKILGO UDALA

**4.- ALKATEAREN DEKRETUAK
JAKINARAZTEA (62/2019tik 83/2019ra).**

2019ko martxoaren 4tik 26ra Alkateak sinatutako 62/2019tik 83/2019ra zenbakia duten Dekretuen berri eman da.

Jatorrizkoak Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**5.- 2019ko APIRILAREN 28ko
HAUTESKUNDE OROKORRETAKO
MAHAIAK OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.**

Zozketa egin ondoren, Hauteskundeetarako Mahaiak III Eranskinean aipatzen diren bezala osatuak gelditzen dira.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeit hamar minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.



**4.- COMUNICACION DE DECRETOS DE
ALCALDIA (62/2019 al 83/2019).**

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 62/2019 al 83/2019 firmados por la Alcaldía entre el 4 y el 26 de Marzo de 2.019


Los originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

**5.- SORTEO PARA LA FORMACIÓN DE
LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS
ELECCIONES GENERALES DEL 28 DE
ABRIL DE 2.019**

Se realiza el sorteo y las Mesas Electorales quedan formadas tal y como se recogen en el Anexo III de este Acta.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y veinte minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



ZIZURKILGO UDALA

I ERANSKINA -- ANEXO I

TOLOSALDEKO EUSKALGINTZAREN GOBERNANTZA EREDU BERRIA *TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA*


Tolosaldeko herritar gehien-gehienak euskaldunak dira: eskualdeko biztanleen %75 euskal hiztuna da, beste %10ak ulertu behintzat egiten du, eta belaunaldi gazteenak unibertsalizazioaren mugan daude. Euskal Herriko zonalde euskaldunen artean jartzen gaitu horrek eta hau, gure ustez, harrotasunez ez ezik, erantzukizunez hartu behar da. Globalizazio garaiotan, hiztun komunitate txikiok ahalegin berezia egitera behartuta gaude eutsi ez ezik gure hizkuntzen etorkizuna bermatzeko. Geure egoeran, posible da Tolosaldean euskara harremanetarako, gozamenerako eta lanerako hizkuntza nagusia izatea, erabateko unibertsalizazioa lortzeko urratsak ematea eta, horrela, hizkuntzen indarberritze eta normalizazioan erreferente izatea, benetako arnagunea euskararentzat. Baina ausardiaz, koherentziaz eta eraginkortasunez jokatzeko eskatzen digu horrek: azken hamarkadetako lorpen izugarriak gutxietsi gabe, euskalgintzaren ibilbidearen irakurketa kritikoa egitea, lan esparru partekatua eraikitzea, jomugak adostea eta norabide berean jardunez herritarrei harrotasun eta erantzukizun hori transmititzea. Hori da dagokiguna.

Soka mutur horri, non hari mutur asko txirikordatzaren diren, heldu dio 2018an zehar gai horretan sakontzen aritu den Tolosaldeko Euskararen Mahaia sustatzeko Lan Mahaia¹. Hemen elkartu dira euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren sentsibilitateak eta lan ereduak, eta euskararen etorkizuna bermatu eta berau eskualdeko hizkuntza nagusia izatea helburu duen gobernantza eredu berritzaile eta erreferentziazkoa eraikitzeko urrats sendoak eman behar direla izan da ondorio nagusia. Euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren arteko elkarlana, eskualde ikuspegia, estrategia eta helburu komunak, berdintasuna eta zeharkakotasuna, eta eraginkortasuna eta lidergo partekatua dira jorratu eta sakondu beharreko kontzeptuak, guztiak, xede honen zerbitzura: **TOLOSALDEAN EUSKARA HIZKUNTZA NAGUSIA IZATEKO ESTRATEGIA BERRITZAILE ETA INKLUSIBOA**.

Hitz gutxitan azaldutako gogoeta hori eta bere baitan hartzen dituen ekimenak, pasa den urrian eta abenduan egin ziren bi batzarretan xeheki aurkeztu zizkion aipatutako Lan Mahaia eskualdean gauzatzen diren hizkuntza politika desberdinen eragileen ordezkari zabalari. Eta berretsiak izan ziren.

Horregatik guztiagatik, ordezkatzeko dudaren erakundearen izenean, **ADIERAZTEN DUT**:


1. Tolosaldea eskualdeko Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil udalerrietan -horietako batean, batzuetan edo guztietan- euskararen etorkizuna bermatzeko jarduerak sustatzeko, garatzeko edo babesteko erantzukizuna dugula, legez ezarria edo, eta batez ere, geure desioz onartua.



ZIZURKILGO UDALA

2. Bat egiten dugula eskualde ikuspegiko hizkuntza plangintza diseinatu eta aitzineratzeko euskalgintza instituzionala eta sozialaren bilgunea, hau da, Tolosaldeko Euskararen Mahaia, eratu eta indartzeko asmoarekin.
3. Bat egiten dugula Tolosaldeko Euskararen Mahaia izango dituen Misio eta Helburuekin:
 - a. Misioa: Tolosaldean euskara indarberritu eta bere erabilera normalizatzea, berdintasun eta aniztasun balioen oinarrietatik, benetan komunikazio eta kohesio hizkuntza nagusia izan dadin bere lur-eremu osoan.
 - b. Helburu estrategikoak:
 - i. Gobernantza eredu berri bat oinarri eta sostengu duen eragile instituzional, sozial eta kulturalen elkargune eta erabakigunea antolatzea.
 - ii. Eskualde mailako hizkuntza politika definitzea.
 - iii. Normalizazio erreala lortzeko baliabideak adostu eta abian jartzea.
 - iv. Gizarte esparru guztietako eragileekin elkarlana bermatzea, euskara beren eguneroko jardunean hizkuntza nagusia, komuna, izan dadin.
 - c. Helburu estrategikoak:
 - i. Bizikidetzaren eremu zabalean (generoa, aniztasuna, integrazioa ...) inklusio bidea egiteko diskurtsoa eta metodoa landu eta garatzea.
 - ii. Garapen sozio-ekonomikoarekin uztartzea.
 - iii. Bizitza sozio-kulturala euskaraz izan dadin ahalbidetzea.
4. Ordezkatzen dudana erakundea gertu dagoela Tolosaldeko Euskararen Mahaia egikaritze prozesuan parte hartzeko eta lankidetzaren eredu honetan sakontzeko, gure presentzia beharrezkoa den foro edo lan-mahaitan parte hartuz, gure esperientzia edota hizkuntzaren normalizaziora bideratutako baliabide teknikoak egitasmoaren zerbitzura jarritz, edota, hala badagokigu (Udalak, Gipuzkako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza) proiektu hau eta bere baitan adostutako ekimen zehatzak ekonomikoki sustengatuz.
5. Edonola ere, hartutako konpromiso hauek ez dutela murrizketarik edo kalterik eragin behar ordezkatzen dudana erakundearen autonomian eta egitekoetan, eta konpromiso hau indartuko dela egitasmo bateratuak gauzatzen diren heinean, baliabideak optimizatzen diren heinean, eta jardura eraginkorragoa eta errentagarriagoa den heinean.

Eta hau egiteko legezko gaitasun nahikoa dutelarik, zera egiaztatzen dut agiri hau: ordezkatzen dudana erakunde edo saileko erabaki organo nagusiak Tolosaldeko Euskararen Mahaia eratzearen egitasmoa babestea eta agiri honetan zehaztutako konpromisoak hartzea onartu zuela,an, 2019ko renan.



ZIZURKILGO UDALA


Erakundea:.....

Kargua:

Izen-abizenak:

Izenpea eta zigilua

¹ Olatz Peon, Jon Zubizarreta, Haritz Mujika, Mikel Artola eta Aritz Mujika (Tolosa, Abaltzisketa, Asteasu, Alegia eta Berastegiko udal ordezkariak), Garbiñe Mendizabal eta Joxean Amundarain (GFAko Hizkuntza Berdintasun zuzendaritza), Estibalitz Alkorta eta Josune Zabalà (EJ-HPSko Sustapen eta Ikerketa zuzendaritzak), Imanol Haro (UEMA). Idoia Olano (eskualdeko Euskara Teknikarien ordezkaria), Joxin Azkue (Larramendi Bazkuna), Xabier Bengoetxea (Galtzaundi Euskara Elkartea), Garbiñe Mendizabal (Tolosaldea Garatzeneko Udal arduraduna), Mikel Ozaita (Soziolinguistika Klusterra), Kike Amonarriz (Bizkidetza eta hizkuntza), Lorea Agirre (Generoa, aniztasuna eta hizkuntza) eta Jexux Murua (koordinatzailea).



ZIZURKILGO UDALA

II ERANSKINA -- ANEXO II

HAUTETSIEN ADIERAZPENA

ZIZURKILGO UDALA

2019 MAR. 27

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 285

Deklarazio hau sinatzen dugun udal hautetsi lokalei, gure herrietan aukeratu izanak ematen digun legitimitateak elkartzen gaitu, gure herrien etorkizunarekiko konpromisoak eta gure herrietan duintasunez bizitzeko eskubideak. Horrez gain, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean, goi tentsioko linearen inguruan egon diren proiektu ezberdinekiko izan dugun oposizioak ere elkartzen gaitu. Proiektu hauek enpresa pribatuak bultzatutakoak izan dira, interes orokorraren izenean baina inoiz ez da kaltetutako eremuen ostrazismoari kondenarik frogatu.

Duela hamarkada bat lehenengo proiektuari aurre egin genion, Vitoria-Gasteiz/Castejón-Muruarte lotzen zituen hain zuzen ere eta gelditu egin zen, 2010eko azaroaren 12ko BOEn jasotzen den bezala, ingurumenari egiten zion kalteagatik eta gizartearen oposizioagatik. Beranduxeago 2011n, bigarren proiektua iritsi zen Itsaso/Deikaztelu eta 250 Udal eta Kontzejutan proiektua atzera botatze eskatzen zuten mozioak onartu ziren eta aldi berean inoiz erantzunik jaso ez duten 15.000 alegazio aurkeztu ziren.

Herriaren oposizioak, erakunde lokalak buru dituztela, bi proiektuak atzera botatzea ez da oztopo izan Red Eléctrica de España S.A. hirugarren proiektu bat aurkezteko eta jardura eremua oinarrian bat dator aurrekoarekin. Zer gehiago egin behar dugu herritar gehiengoaren borondatea errespetatzeko? Proiektu honekin aurrera egitea herritarren ordezkaritza demokratiko legitimoari iseka egitea da.


Proiektuaren etorkizunerako erabakigarriak diren momentu hauetan, argi adierazi nahi dugu, éztabaida ez dela trazaduren alternatibak edo zeintzuk jasan behar dituzten burugabekeria honen eraginak, baizik eta proiektuaren justifikaziorik eza. Proiektua beharrezkoa ez dela pentsatuta, garraio elektrikoaren azpiegiturak optimizatzearen alde apustu egiten dugu eta hornikuntzaren hobekuntza planak betetzea, benetako beharretara egokituz.

Ingurumen eta kultur ondare aberatsaren atzean, gure paisaiaren pantaila bukolikoaren atzean, lurralde desoreka handiak, zerbitzu sozial prekarioak eta konparaziozko bidegabekeria zenbatuezinak izkutatzen dira, Gure bailarak, gure mendiak ezin dira azpiegiturak jartzeko euskarri fisiko bakarrik bihurtu, azpiegitura hauek inpaktu jasanezina baitira ingurumenarentzat, osasunarentzat eta ehun produktiboarentzat eta gainera bateraezinak, gure herri eta bailarentzat aurreikusita dauden etorkizuneko garapen planekin.

Horregatik guztiagatik eskatzen diegu erakunde eskudunei, Itsaso eta Castejón Muruarte arteko goi tentsioko linea behin betiko eta denborarik galdu gabe atzera botatzea, horrela errespetatuko baita herritar gehiengoaren borondatea eta gizartearentzat ondare, natura eta kultura balio handia duten guneetan kalte konpon ezina ekidingo da. Aldi berean, Foru Gobernuari eta Erkidegokoari Udalen eta Kontzejuen alde jartzea eskatzen diegu, multinazional elektrikoen interesen aurrean.

Azkenik, ekosistemaren garapen demokratikoaren aldeko apustua adierazi nahi dugu, herritarren behar errelean eta gure etorkizuna erabakitzeko eskubidean oinarrituta, nekazar ingurunea errespetatzea eta jardura ekonomikoen eta osasun publiko eta ingurune naturalaren arteko armonía eta oreka ahalbidetuz.

Sinadura:



ZIZURKILGO UDALA **III ERANSKINA**

ANEXO III

**2019ko APIRILAREN 28ko
HAUTESKUNDE OROKORRETARAKO
MAHAIK OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.**

**SORTEO PARA LA FORMACION DE LAS
MESAS ELECTORALES PARA LAS
ELECCIONES GENERALES DEL 28 DE
ABRIL DE 2.019**

Zozketa egin ondoren, Hauteskundeetarako
Mahaiak honela osatu dira:

Se realiza el sorteo y la formación de las Mesas
ElectORAles resulta como sigue:

1 - A MAHAIEKO KARGUAK CARGO MESA 1 - A	HAUTESLEA ELECTOR
Lehendakaria /Presidente	FERNANDEZ ALAMINOS, Jennifer
1. Ordezkoa / 1. Suplente	GARMENDIA ASUABARRENA, Jon Ander
2. Ordezkoa / 2. Suplente	EGUIBAR MICHELENA, Miguel Angel
1. Mahaikidea / 1er. Vocal	ELOSEGUI ARZALLUS, José Luis
1. Ordezkoa / 1. Suplente	BRAVO PEREZ, Ana María
2. Ordezkoa / 2. Suplente	FERNANDEZ DE LEZEA YARZA, Eñaut
2. Mahaikidea / 2º Vocal	BELOKI SANCHEZ, María
1. Ordezkoa / 1. Suplente	GUEREÑU BARRIOLA, Jaione
2. Ordezkoa / 2. Suplente	ECHABURU OTAEGUI, Alatzne

1 - B MAHAIEKO KARGUAK CARGO MESA 1 - B	HAUTESLEA ELECTOR
Lehendakaria /Presidente	MUÑAGORRI SORARRAIN, Jesús
1. Ordezkoa / 1. Suplente	DE LA NAVA MARTINEZ, Rosa María
2. Ordezkoa / 2. Suplente	TAPIA VILLAJOS, Eneko
1. Mahaikidea / 1er. Vocal	LARRARTE OTAEGUI, Enara
1. Ordezkoa / 1. Suplente	JAUREGUI LANDA, Leire
2. Ordezkoa / 2. Suplente	MOLANO CLEMENTE, Joaquina
2. Mahaikidea / 2º Vocal	UGARTEMENDIA LAZCANO, Santiago
1. Ordezkoa / 1. Suplente	ZABALA DORRONSORO, Aizpea
2. Ordezkoa / 2. Suplente	MENDIZABAL IMAZ, José María

2 MAHAIEKO KARGUAK CARGO MESA 2	HAUTESLEA ELECTOR
Lehendakaria /Presidente	GABARAIN AMENABAR, Juan Ramón
1. Ordezkoa / 1. Suplente	PAJARES GALEANO, Julia María
2. Ordezkoa / 2. Suplente	NOGALES AGUIRRE, Ander
1. Mahaikidea / 1er. Vocal	GUERRA PAVO, Antonia
1. Ordezkoa / 1. Suplente	LIMON CARREON, Lidia
2. Ordezkoa / 2. Suplente	URCOLA JAUREGUI, Felisa
2. Mahaikidea / 2º Vocal	VILLENA GARRIDO, Ane
1. Ordezkoa / 1. Suplente	SANCHEZ FERRO, Víctor Manuel
2. Ordezkoa / 2. Suplente	DURAN GOICOECHEA, Iara